

# PLaza

44 ■ 'La influencia' Cannesko Zinemaldian



Pedro Aguilera zinemagile donostiarren filma 'Quinzaine des Réalisateur' sailean emango dute.



Kaki Arkarazo soinu teknikaria, Garate estudioetako grabatzeko areto nagusian, atzean kontrol mahaiaren gela duela. JON URBE / ARGAZKI PRESS


## Soinuaren artisauak

Musikarien eta taldeen itzalean egon ohi dira soinu teknikariak, baina haien lana ezinbestekoa da, grabazioetan nahiz kontzertuetan.

### GORKA EROSTARBE

Andoain

**S**witch on. «Zati horretan leunago jo ezak, abestiak behera egiten dik eta». Andoingo (Gipuzkoa) Garate estudioetako kontrol mahaiaren pareko aulki mugikorrean eserita dago Kaki Arkarazo (Lazkao, Gipuzkoa, 1961). Aurpegierra serioa du. Lanean buru-belarri sartuta dago. Eskuak batera eta bestera darabiltza mahai kontroleko botoi ugarietan. Xabel Vegas & Las Uvas De La Ira talde asturiarren lan berria grabatzen ari dira. Aste oso-



Teknikaria, botoi eta kable artean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

an izan dira grabatzen, eta hondar lanetan daude. Taldeko teklatu jotzaileari esan dizkio hitz horiek, pianoa sartzea baino ez baitzaie geratzen.

Bi alde edo aurpegi ditu Arkarazoren musikarekiko zaletasunak. Musika *barraren* bialdeetan egona da. Ezagutu du musikariaren jarduna, M-ak, Negu Gorriak eta Nacion Reixa taldeetan, eta ezagutu du soinu teknikari eta ekoizlearen lana ere. Bigarren hori du egunero lan gaur egun. 2000. urtean sortu zituen Garate Estudioak, Andoingo Sorabilla auzoko baserri batean. Orduz geroztik, hamaikatzeko talde igaro da estudioetatik: Anari, Chucho, Manta Ray, Fermin Murguruza, Amparanoia, Kashbad eta Atom Rhumba, batzuk aipatzearen. Guztiak estudioaren soinu ezaugarri bereziak aprobetxatu nahian: «Gure lan egiteko moduak hainbat musika tresna elkarrekin grabatzeko aukera ematen du, es-

tudioaren ezaugarri eta dimentsioek ematen dute aukera hori: bateria, gitarra eta baxua elkarrekin grabatzen ditugu sarri, eta horrek osotasuna ematen dio soinuari. Talde asko horregatik etortzen dira». Egurra eta harria ditu osagai nagusi estudioak: «Egurak goxotasuna ematen dio soinuari, eta harriak, indarra. Gainera, oso neurri egokia du estudioak, altura handia baitu, eta hori oso garrantzitsua da».

Artistak nahi duen hori ematen saiatzen da Arkarazo. «Psikologia lana ere bada soinu teknikariarena. Hasieratik artistak zugandik zer nahi duen ikusi behar da, eta hori eman. Halere, artistak edo taldeak motibatzen banau, gustatzen zait nire ekarpenak egitea; ez banau motibatzen, nire lana egin eta kito. Printzipioz ez naiz askorik sartzen, baina eskatzen badidate, eta gustuko badut, bai».

Antzeko lan filosofia du Karlos Osinaga musikari (Lisabö) eta soinu teknikari irundarrak ere: «Grabazioaren bat hasi orduko solasaldi bat izaten dut musikariarekin, eta berehala ikusten da zenbaterainoko konplizitate dagoen bien arte-

## 50-51 ■ Dionisio Amundarain beneditarra



«Tamalez, erosi, erabili eta bota tankerako jokamoldea izaten dugu; arin-arin bizi gara, azaletik».



## 52 ■ Arrantzaleen emazteen dokumentala

'Kardala' film dokumentala aurkeztu du Juan Bidegainek; itsasgizonek emazteen errealitatea azaltzen du.

an. Nik gauza asko proposatu ohi dut, baina, normalean, gehitzeko izaten da. Oso gutxitan esaten dut 'hori ez ezazu egin'. Azken finean, grabazioa talde edo musikari baten fruitua da, eta nor gara zu grabatzen duen edo ez esateko».

Osinagak beti topatu ohi du «motibazioaren bat» grabatzeko orduan: «Taldea oso gustukoa ez baduzu ere, beti lortzen da konplizitate, nahiz eta pertsonalki besterik ez izan. Azkenean, ez dakit zergatik, baina beti aurkitzen dut zerbait grabazioetan... batera jotzailea nola sartzen den besterik ez bada ere».

Oso gazterik grabatu zuen lehen maketa Osinagak: «Duela 10-12 bat urte izango zen. Lif-en maketa grabatu ostean animatu nintzen mundu honetan aurrera egiten. Orain hamar bat urte musikaren munduan hasi zen baliabideen iraultza horrek harrapatu ninduen parez pare, eta hor sartu nintzen poliki-poliki. Dut-en *Askatu Korapiloa* grabatu, eta lan aukerak ugaritu zitzaizkidan». Duela bost urtetik hona Tolosako Bonberenean aritzen da grabazio lanak egiten: «Azkenaldian lan gutxiagorekin gabilta, jendeak gero eta eskurago baitu grabatzeko materiala».

**DIGITALA VERSUS ANALOGIKOA.** Azken hamarkadetan asko aldatu dira grabatzeko teknikak, euskarri digitalaren etorrerarekin batez ere. Zenbait ahots plazaratu dira grabazio analogikoaren alde azkenaldian.

Modu digitalean eta PC batekin grabatu ohi du Osinagak. Haren hitzetan, «literatura» asko dago gai horren inguruan. «Jende askok hitz egiten du, esku artean sekula grabagailu analogikorik izan gabe. Badakigu analogikoak berezitasun bat ematen diola soinuari, distortsio harmonikoagoa lortzen dela eta abar. Baina, hori lortzeko, ondo egin behar da. Ni, grabagailu analogiko bat hartuko banu, larri ibiliko nintzateke. Hori grabazio asko egin dituen batek egin dezake, eta, gainera, estudio handi samarra behar da. Dena oso garestia da eta ez dago eskura». Digitalizazioaren aukerak «ontzat» jotzen ditu Osinagak: «Nik argazkiekin konparatzen dut. Orain ia edonork sekulako argazkiak egin ditzake, eta hori oso ondo dago. Edozein jolas daiteke jada. Edozein modutan, euskarriak berezitasun bat ematen dio soinuari, baina ez da garrantzitsua. Garrantzitsua kantua da, musika, musika tresna...».

Grabatzeko tekniken aldaketak «goitik behera» bizi izan ditu Jean Phocas soinu teknikari lapurtarrak (Hendaia, 1958). Haren ustez «abantaila handiak» ekarri ditu

euskarri digitalak: «Lehen zuzenean euskarri magnetikoan grabatzen zen, eta musikariak oso ondo jo behar izaten zuen hasi eta buka. Orain, digitalarekin gauza asko konpon daitezke: moztu, jarri, kendu, jigo, jaitsi... Analogikoak kalitate hobe izan dezake, baina digitalak ere asko egin du aurrera eta jada ez da hainbesteko alde. Egun, dena pantailaren bidez egiten da. Lehen, gehiago zen eskulana, bobina moztu, itsatsi... Askok ere lan fisikoagoa zen. Orain, dena teklatuaren bidez egiten da».

Kaki Arkarazok euskarri analogikoa eta digitala erabiltzen ditu, biak ala biak. Modu digitalak «erraztasun handiak» ekarri dituela aitortzen du, baina soinua har-




«Euskarriak berezitasun bat ematen dio soinuari, baina ez da garrantzitsua... garrantzitsua kantua da»

KARLOS OSINAGA  
SOINU TEKNIKARIA



«Kontzertuetan aretoaren ezaugarriak kontuan hartu behar dira: kanpoan den, pilotaleku batean den...»

JEAN PHOCAS  
SOINU TEKNIKARIA



«Psikologia lana ere bada soinu teknikariarena. Artistak zer nahi duen ikusi behar da, eta hori eman»

KAKI ARKARAZO  
SOINU TEKNIKARIA

tzeko orduan aldaketak «txarrerako» izan direla uste du: «Soinu musikala, oraindik ere, antigoaleko soinua da. Konparazio asko egin ditut, eta analogikoa naturalagoa da».

Naturaltasuna. Horixe izaten du helburu Osinagak grabazioetan: «Kantuaren espiritua eta naturaltasuna islatzen asmatzen badut, zerbait lortu dut. Grabazioa kantuaren isla da. Isla hori mila modutara egin daiteke, baina naturaltasuna lortzen bada, asko egin den seinale».

Naturaltasun hori islatzen dakielako miresten dute bai Arkarazok eta baita Osinagak ere Steve Albini musikari eta soinu teknikari estatubatuarra —gaur Bilboko Kafe Antzokian izango da, Shellac taldeko gitarrista modura—. Osinagak «eredutzat» dauka haren lan filosofia: «Maisu bat da. Nik uste dut berak eredu eta arau pila bat puskatu dituela. Gustatzen zait bere grabazioetan lortzen duen giroa, naturaltasuna. Antzeko giroa lortzen du, baina talde bakoitzak bere nortasuna mantentzen du. Eta hori da zailena soinu teknika-rientzat».

**KONTZERTUEN INDARRA.** Estudioko lanean ez ezik, kontzertuetan ere aritzen dira soinu teknikariak. «Oso mundu desberdinak» dira biak, Phocasen arabera: «Asko ibili zina kontzertuetan. Beste teknika bat da, erabat ezberdina. Aretoaren ezaugarriak kontuan hartu behar dira: kanpoan den, pilotaleku batean edo kontzertuetarako areto batean den...». 70eko hamarkada amaieran hasi zen lan teknikari moduan Phocas: «Xoxoa diskotexean hasi nintzen. *Free-lance* gisa aritu nintzen gero, eta Elkar estudiantean nabil azken bolada luzean». Errobi, Ruper Ordorika, Itoiz, Oskorri, La Polla eta beste zenbait taldeekin aritu da lanean.

Arkarazorentzat ere «ez daukate zerikusirik» grabatzeko lanak eta kontzertuetakoak: «Estudioko teknikarietaz nahiko erraza da kontzertuetakoa. Estudioko lanean emaitza baino ez da, potentzia handiagoarekin. Kontzertuetan bakarrik ohituta bazaude, estudioan gal zaitezke, baina alderantziz errazagoa da. Espazio irekiak eta taldearekin irteak asko oxigenatzen zaitu estudioko lanetik, baina bere buelta badauka. Asko ibiltzen bazara, erre egin zaitezke».

Xabel Vegas eta bere taldekideak beste behin saiatu dira azken kantuko pianoa grabatzen. Guztiei gustatu zaie nola geratu den. Baita Kaki Arkarazori ere. Listo. Egingako grabazioekin aukerak egin eta nahasketak egitea baino ez zaie geratuko, bost kantuz osaturiko EPA amaitzeko. *Switch off*.

## ■ SOINU TEKNIKARI ENTZUTETSUAK

Musikaren historian eragin handia izan dute aldiari aldiko soinu ekoizle edo teknikariak. Garai bakoitzeko soinua finkatu izan dute. Honako hauek rockaren historiari soinu teknikari garrantzitsuenetako batzuk dira:



## Phil Spector

(New York, AEB, 1940)

Ike and Tina Turner, The Rolling Stones, The Beatlesen *Let it Be* eta 60ko hamarkadako zenbait *girl group*-en (The Ronettes and The Crystals) diskoak ekoiztu zituen. *Wall of sound* (soinu horma) izeneko grabazio teknika asmatu zuen, hau da, grabazioaren espazio guztia musikaz betetzen zuen, pista ugari grabatuz eta soinu trinko eta indartsua lortuz. 70eko hamarkadan John Lennon, George Harrison eta The Ramones artistekin lan egin zuen, besteak beste. Ondoren, bere musika ibilbidea guztiz utzi zuen, eta bizirik dagoen mitoa bilakatu zen.



## Brian Eno

(Woodbridge, Ingalaterra, 1945)

Uz, David Bowie eta Talking Heads taldeekin lan egin du, besteak beste. Roxy Music *glam rock* taldeko kide izan zen 70eko hamarkadan. Taldea utzi eta gero, *ambient music* delatuenen sortzaileetako bat izan zen. Melodia edo erritmoari baino gehiago, giro edo atmosferari ematen die garrantzia musika molde horrek.



## George Martin

(Londres, Ingalaterra, 1926)

Lanean ez diharduen arren, musika ekoizle edo soinu teknikari estimatu eta laudatuenetako da oraindik ere. The Beatles taldearen ia disko guztiak ekoiztu zituen 60ko hamarkadan. Musika hezkuntza klasikoa jaso zuen, eta horren ondorioz, orkestratzeko zatiak konpona zitzaizkeen, *Yesterday* kantuko harizko

laukotearen zatia, esaterako. Martinek soinu berezi eta desberdina eman zion The Beatles taldeari.



## Rick Rubin

(New York, AEB, 1963)

Hip-hop (Run-D.M.C., LL Cool, Beastie Boys...) eta rock gogorrek (Ret Hot Chili Peppers, System of a Down, Slayer...) taldeekin lan egin duen arren, azken urteetan Johnny Cash country musikari handiarekin egindako lanengatik egin da ezagun. Berrito diskoak graba zitzan konbentzitu zuen hura. American Recordings izenpean bost diskoz osaturiko sorta grabatu zuen (azkena Cash hil ostean kaleratu zen), ekoizpen soil eta bilutsiaren bidez.



## Nigel Godrich

(Ingalaterra, 1971)

Soinu ingeniari eta produktorea. Radiohead taldearen soinua finkatzen egindako lanarengatik lortu du onspena, batez ere. Paul McCartney, Travis, Beck, Pavement, Air, The Sundays, The Divine Comedy, Uz eta REM taldeekin ere lan egin du, besteak beste, dela ingeniari, ekoizle edo soinu nahasle moduan. Bere grabazioak geruzaz geruzaz egingo direla bereziak.



## Steve Albini

(1962, kalifornia, AEB)

Musika ekoizle edo soinu teknikari gehienengandik desberdina da. Taldean zuzenean soinua lortzea du xede. Soinuaren naturaltasuna edo gordintasuna bere horretan harrapatu nahi izaten du, baliabide teknologikoen bidez gehiegi manipulatu gabe. Bere burua ez dauka ekoizletzat, grabatzaile soiltzat baizik. Pixies, Nirvana, P.J. Harvey eta beste hamaitzok artistekin lan egin izan du. Shellac taldeko gitarrista ere bada egun.